

Irakaslea: Agurtzane Olazagoitia

Axular Lizeoa

Lehen Hezkuntza (Irakurle berriak)

Ideia izena: "Bakea"

“KOSMODISEA OSO JARDUERA ONA DA TALDE LANA BULTZATZEKO ETA TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILTZEKO”

“Bakea”, Lehen Hezkuntzako lehen etapako ideia irabazlea da, Donostiako Axular Lizeoak aurkeztuta, eta Lurreko arma guztiak herri bakoitzean bildu eta birziklatzeko aukera aztertzen du. Laborategi zientifiko batek hartutako luke armak naturaz eta bakeaz gozatzeko tresna bihurtzeko ardura.



Agurtzane Olazagoitia, 26 ikaslek osatutako “Hartz txiki galaktikoak” taldearen irakasle arduraduna da eta, berak azaldu duenez, “iaz gure ikastetxeko talde batek parte hartu zuen eta iruditu zitzaigun ikasleentzako ekimen oso aberasgarria zela. Nire ustez, jarduera oso positiboa da

batez ere talde-lana sendotzeko, teknologia berriak erabiltzeko eta egun guztiok kezkatzen gaituzten gaiak lantzeko".

- Nola hautatu zenuten irabazle ateratako ideia?

- Lehendabizi, klase osoak gaiari buruz hitz egin genuen, oro har. Jakin nahi genuen ingurumenaren eta aurrerapen zientifikoaren mundutik zerk kezkatzen gintuen. Gero, taldeak eratu genituen eta ideia-parrastada bota zuten, eta talde bakoitzean idazkari bat hautatu. Ikasleek ideia interesgarrienak aukeratu zituzten, gainontzeko taldeei aurkeztu zizkieten eta, guztion artean, gustukoak zituzten ideiak hautatu zituzten. Horiek bidali genituen Kosmodiseara.

- Laburbilduz, zertan datza aurkeztu duzuen ideia?

- Gure ideia bakeari buruz da, armak suntsitzeari buruzkoa, eta gerrei ezezkoa ematearen aldekoa. Gerrak pobrezia eta tristezia dakartza. Beste konponbide batzuk bilatu behar dira. Entrenamendufasean, ideia zabaldu eta proiektua zehaztuko dugu.

- Zuen iritziz, zer da Kosmodiseako proposamenaren interesgarriena?

- Oro har, proiektua bera, talde-lana sendotzea, teknologia berriak erabili ahal izatea eta kezkatzen gaituzten gaurkotasuneko gaiak lantzea.

